


Euskararen Gaitasun Agiria *EGA*




ATARIKO PROBA



DESKRIBAPEN TEKNIKOA

ZUZENKETA

ANALISIAK



ATARIKO PROBA

DESKRIBAPEN TEKNIKOA

Ondoko orrialdeotan EGA Atariko Probaren deskribapen teknikoa dago: Proba bere osotasunean eta bai hura osatzen duten sailena.

Azaldurik daude Probaren funtzioa, testuingurua, oinarriekiko loturak (EGA konstruktua, Europako Erreferentzi Marko Bateratua), sailen ezaugarriak eta horiek C1 mailako zehaztasunekin zer lotura duten.

Horietatik abiatuta, azaldurik dago ariketek zer gaitasun neurtzen duten (gaitasun hartzaileak eta ekoizleen simulazioa) eta, horretarako, ariketak zelan eraikitzen diren, alegia, zer zehaztasun tekniko duten.

Atariko Probako osagaiak (sailak eta itemak) xehehurik, horien lagin edo eredu batzuk eskaintzen dira, azken emaitzak erakustearren.

2010, abendua

EGA

Azterketa Batzorde Ofizialeko Zuzendaritza

AURKIBIDEA (DESKRIBAPEN TEKNIKOA)

ATARIKO PROBA

Funtzioa Deskribapena

	Testuingurua. Arrazoi akademikoak. Bi langa. Moldapena	3
	Oinarriak	4
	Deskribapena. Ezaugarriak. Sailak	5
Sailak		
B saila	Ahozkoan oinarritutakoak B1 - B2 - B3	6
C saila	Lexikoa	8
D saila	Morfosintaxia D1 - D2 - D3 - D4	9
E saila	Euskara batua jakitea	11
F saila	Irakurriaren ulermena F1 - F2	12
G saila	Beste batzuk	14
Deskribapen fisikoa		15

ATARIKO PROBA	Funtzioa	Deskribapena
Atala	ATARIKO PROBA	EGA azterketarako sarrera proba
Testuingurua	EGA Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren ardura da, 1982tik. Euskaltzaindiaren D tituluaren jarraitzailea da EGA. EGAK ez du helburutzat etekin ekonomikoak lortzea –ez da erakunde pribatu baten agiria–; hortaz, helburu sozial bat betetzen du. Hasierako urteetan 3.000-4.000 azterketari aurkeztzen ziren. Baina kopurua laster hirukoiztu zen. EGA gainditze tasa %35-40 zen hasierako urteetan. Kopurua hirukoiztearekin batera gainditze tasa %25 inguru izatera jaitsi zen. EGA probara aurkezteko baldintza bakar bat dago: gutxienez 17 urte edukitzea edo azterketaren urte berean betetzea. Hortaz, edonor aurkez daiteke, euskara maila edozein delarik ere. Gainditu gabe geratzen ziren gehienen maila urrun zegoen EGAREN eskakizun mailatik. Ondorioz, 1992an Atariko Proba ezarri zen, hots, sarrera proba bat, honako helburu argiarekin:	
<i>Zertarako</i>		<i>EGARA (Proba Idatzia eta Ahozkoa) bakarrik bideratuko dira eskakizun mailatik hurbil dabiltzan kandidatuak.</i>
Arrazoi akademikoak	EGA, D tituluaren jarraitzaile izanik, haren eskakizun mailari eusten ahalegindu zen hasieratik, eredu komunikatibo batean oinarriturik, lau gaitasunen neurketaren bidez: ulermena (entzutezkoarena eta irakurriarena) eta adierazpen idatzia eta ahozkoa (1983ko Programa).	
<i>Zergatia</i>	EGAREN eskakizun mailatik urrun kandidatu gehiegi aurkezteak distortsionatu eta zailago egiten zuen EGA mailaren inguruan zeudenen neurketa akademiko egokia. Baina, Atariko Proba ezin zen izan EGA azterketaren ordekoa. Aitzitik, kandidatuen benetako gaitasuna Proba Idatziak eta Ahozko Probak erakutsi behar zuten. Atariko Probak, item labur eta askotarikoen bidez, kandidatuen hizkuntz gaitasuna neurtu behar zuen, ahalik eta modu fidagarrienean: ahozko hizkuntzako eta hizkuntza idatziko testuinguruak simulaturik.	
Bi langa	Atariko Proba eraiki zenean (100 item), egin ziren testek eta analisisiek erakutsi zuten ezen EGA mailaren inguruko azterketariek 75 edo gehiago lortzen zutela. Horregatik, lehenengo langa: 75 . Hori gainditzeko zuten guztiek aurrera egingo zuten, inolako «numerus clausus»-ik gabe. Bestetik, ordea, Atariko Proba ezin zen “EGA proba” bihurtu. Hizkuntz gaitasun guztien neurketa Proba Idatzian eta Ahozkoan gauzatu behar zen. Horregatik, EGA mailatik hurbil zebiltzan azterketariei ere beraien hizkuntz gaitasuna proban jartzeko aukera emango zitzaienten, bigarren langa baten bidez: azterketarien erdiak , gutxienez, EGA probetara igaroko ziren.	
Ondorioak	Urte urte, Atariko Probak bere helburua du: EGAKo Probetara igarotzen diren kandidatuen soslaia homogeenagoa izan dadin laguntzen du. Hautapen horrek Proba Idatzian eta Ahozkoan neurketa akademiko egokiagoa egin dadin laguntzen du. Atariko Proba ezartzeak ez die eragin EGAREN emaitza orokorrei. Fidagarritasun handia erakutsi du: estatistikoki, 75eko langa gainditzeko dutenak EGA mailakoak direla frogatzen dute gehien-gehienak.	
Moldapena	2011. urtean Atariko Proban moldapena egin da. Ariketa mota bat kendu da. 100 itemekoa izatetik 85 itemekoa izatera pasatu da. Ondorioz, langa bat aldatu egin da. Lehenengo langa: 60 da . Bigarrena, berdin: gutxienez %50 aurrera.	

Oinarriak EGA KONSTRUKTUA

- **GAITASUNAK**
SOZIOLINGUISTIKOA: atazak eskatutako testuingurura egokitzeko, hizkuntz aldaerak ulertzeko eta erabiltzeko, erregistro desberdinak ulertzeko.
LINGUISTIKOA: lexikoa, morfologia, sintaxia, fonologia eta ortografia.
FUNTZIONALA: deskribatzeko, kontatzeko, argudiatzeko, agintzeko, erregutzeko, sentimenduak adierazteko.
- **HIZKUNTZ FUNTZIOAK**
Ideiak adierazi, hartzailearengan eragin, funtzio heuristikoa eta sormenerakoa.
- **HIZKUNTZ JARDUERAK**
Irakurritako testuak ulertzea.
Testuingurua aintzat harturik, adierazpen egokiak aukeratzea, ahozko hizkuntzarako zein idatzirako.

Oinarriak EEMB / C1

- **EEMB** (Europako Erreferentzi Marko Bateratua)
HIZKUNTZ GAITASUNAK
Ezagutza eta gaitasun lexikoak, fonologikoak, sintaktikoak eta soziolinguintikoak (hiztegia, esapideak, eleaniztasun egoeran).
GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOAK
Hizkuntzaren erabileraren baldintza soziokulturei dagozkienak: kortesiazko arauak, belaunaldi, sexu, klase eta gizarteko taldeen arteko harremanetako arauak eta komunitatearen funtzionamenduan funtsezkoak diren oinarriko errituen kode linguistikoak.
GAITASUN PRAGMATIKOAK
Komunikazio trukeetan edo agertokietan oinarritutako hizkuntz baliabideen erabilera funtzionala: diskurtsoa menderatzea, kohesioa eta koherentzia, testu formak bereiztea, ironia eta parodia.
- **C1**
GAITASUN HARTZAILEAK
Gai da xehetasunak eta **ñabardurak ulertzeko**: iritzi implizituak eta esplizituak, **hiztunen jarrera eta beren arteko erlazio implizituak, esamolde idiomatikoak eta erregistro aldaketak...**
Gai da lagun arteko hizkuntza edo argota ulertzeko.
Gai da testu luze eta konplexuak erabateko xehetasunez ulertzeko,
Gai da gizarte-bizitzan, lan-arloan edo arlo akademikoan aurki ditzakeen testu zabal eta konplexuen sail handia zehatz ulertzeko, eta jarrerak eta iritzi implizituak nahiz esplizituak adierazten dituzten xehetasunez ohartzeko.
HIZKUNTZ GAITASUNA
Trebea da testuinguruko gako-hitzak, gako-hitz gramatikalak eta lexikalak erabiltzen, jarrera, aldartea, adimen jarrera eta asmoak inferitzeko, eta ondoren gertatuko dena aurreikusteko.
Baliabide ugariren jabe da eta egokiena aukeratzeko du adierazi nahi duena zehaztasunez adierazteko.
Hiztegi zabala du eta esamoldeak eta ahozko beste zenbait adierazpide ere erabiltzen ditu.
Esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak ezagutzea maila ona du.
Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin.
GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA
Esamolde eta lokuzio ugari ezagutzen ditu. Gai da erregistro batean baino gehiagotan aritzeko, oso muturrekoa ez bada (sentimenduak adierazi, txantxatan jardun, maitasun hitzak esan...).

ATARIKO PROBA	Deskribapena	Ezaugarriak																		
Sailak eta kopuruak	<ul style="list-style-type: none"> • B AHOZKO HIZKUNTZAN OINARRITUTAKOAK • C LEXIKO ARIKETAK • D MORFOSINTAXIA • E EUSKARA BATUA JAKITEA • F HIZKUNTZA IDATZIAREN ULERMENA • G BESTE BATZUK 	<p>30</p> <p>10</p> <p>24</p> <p>5</p> <p>12</p> <p>4</p>																		
Sailen justifikazio akademikoa	<ul style="list-style-type: none"> • EGAREN oinarri den eredu komunikatiboarekin lotura zuzena du. Konstruktuan eta EEMBN deskribatzen diren gaitasunak eta hizkuntz funtzioak barne hartzen ditu. • Hizkuntzaren osotasuna aintzat hartzen du: ahozkoa, idatzizkoa, zehaztasuna, adierazkortasuna, zuzentasuna, aberastasuna... • Ahozkoaren eta idatziaren arteko orekara hurbiltzen da: B atala ahozkoan kokatzen da: 30 item, eta berori da atal handiena; beste atalak hizkuntza idatziarekin lotuago daude: 45 ariketa. Lexikozkoak biek du lotura: 10 item. 																			
Distraigarrien nolakotasuna	<ul style="list-style-type: none"> • B saila Egokia / Zuzena baina testuingurutik kanpo / Trakeskeria / Desegokia edo Erdarakada • C saila Testuingururako sinonimo egokia / Sinonimoa baina ez testuinguru horretan / Ez sinonimoa, baina antzeko itxura / Hitz arraro xamarra: ezta antzekoa ere • D saila Zuzena / Ez guztiz zuzena / Trakeskeria / Erdarakada / Ez-gramatikala • F saila Hariarekin bat eta zehatza / Zuzena (\neqgramatikala) baina zentzugabea / Zuzena baina aldrebeskeria / Zuzena baina ulergaitza - hanpatua • E - G sailak Zuzena / Ez guztiz zuzena / Okerra / Okerragoa 																			
Ezaugarri teknikoak	<table> <tr> <td>Item kopurua</td> <td>85</td> </tr> <tr> <td>Hitz kopurua</td> <td>3.000 (\pm 200)</td> </tr> <tr> <td>Karaktere kopurua</td> <td>17.000 (\pm 1.000)</td> </tr> <tr> <td>Aukerak</td> <td>a - b - c - d</td> </tr> <tr> <td>Koadernotxoak</td> <td>8 orrialde = 4 orri, grapatuta Ez da zuzentzen</td> </tr> <tr> <td>Erantzun-orria</td> <td>Orri berezia, 100 laukitxoduna, arkatzez markatzekoa</td> </tr> <tr> <td>Zuzenketa</td> <td>Irakurgailu optikoz</td> </tr> <tr> <td>Orrialdeen formatua</td> <td>Bi zutabetara</td> </tr> <tr> <td>Itemen formatua</td> <td>Zenbakia eta enuntziatua, letrakera beltz lodiz Norbaiten esanak eta testu zatiak, letrakera etzanez</td> </tr> </table>	Item kopurua	85	Hitz kopurua	3.000 (\pm 200)	Karaktere kopurua	17.000 (\pm 1.000)	Aukerak	a - b - c - d	Koadernotxoak	8 orrialde = 4 orri, grapatuta Ez da zuzentzen	Erantzun-orria	Orri berezia, 100 laukitxoduna, arkatzez markatzekoa	Zuzenketa	Irakurgailu optikoz	Orrialdeen formatua	Bi zutabetara	Itemen formatua	Zenbakia eta enuntziatua, letrakera beltz lodiz Norbaiten esanak eta testu zatiak, letrakera etzanez	
Item kopurua	85																			
Hitz kopurua	3.000 (\pm 200)																			
Karaktere kopurua	17.000 (\pm 1.000)																			
Aukerak	a - b - c - d																			
Koadernotxoak	8 orrialde = 4 orri, grapatuta Ez da zuzentzen																			
Erantzun-orria	Orri berezia, 100 laukitxoduna, arkatzez markatzekoa																			
Zuzenketa	Irakurgailu optikoz																			
Orrialdeen formatua	Bi zutabetara																			
Itemen formatua	Zenbakia eta enuntziatua, letrakera beltz lodiz Norbaiten esanak eta testu zatiak, letrakera etzanez																			
Denbora	<table> <tr> <td>Aurreikusitakoa:</td> <td>60 min</td> </tr> <tr> <td>Erantzun-orria behar bezala betetzeko:</td> <td>5 min</td> </tr> <tr> <td>Guztira:</td> <td>65 min</td> </tr> </table>	Aurreikusitakoa:	60 min	Erantzun-orria behar bezala betetzeko:	5 min	Guztira:	65 min													
Aurreikusitakoa:	60 min																			
Erantzun-orria behar bezala betetzeko:	5 min																			
Guztira:	65 min																			

ATARIKO PROBA	B saila	Ahozkoan oinarritutakoak								
<p>Oinarriak</p> <p>EGA KONSTRUKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> GAITASUNAK SOZIOLINGUISTIKOA: atazak eskatutako testuingurura egokitze, hizkuntz aldaerak ulertze eta erabiltze, erregistro desberdinak ulertze. LINGUISTIKOA: lexikoa FUNTZIONALA: argudiatze, agintze, erregutze, sentimenduak adierazte. HIZKUNTZ FUNTZIOAK Ideiak adierazi, hartzailearengan eragin, funtzio heuristikoa eta sormenerakoa. HIZKUNTZ JARDUERAK Testuinguru aintzat harturik, adierazpen egokiak aukeratzea, ahozko hizkuntzarako. <p>EEMB, C1</p> <ul style="list-style-type: none"> EEMB HIZKUNTZ GAITASUNAK Ezagutza eta gaitasun soziolinguistikoak (hiztegia, esapideak, eleaniztasun egoeran). GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOAK Hizkuntzaren erabileraren baldintza soziokulturalei dagozkienak: kortesiazko arauak, belaunaldi, sexu, klase eta gizarteko taldeen arteko harremanetako arauak eta komunitatearen funtzionamenduan funtsezkoak diren oinarriko errituen kode linguistikoak. GAITASUN PRAGMATIKOAK Komunikazio trukeetan edo agertokietan oinarritutako hizkuntz baliabideen erabilera funtzionala: diskurtsoa menderatzea, ironia eta parodia. C1 GAITASUN HARTZAILEAK Gai da xehetasunak eta ñabardurak ulertze: iritzi inplizituak eta esplizituak, hiztunen jarrera eta beren arteko erlazio inplizituak, esamolde idiomatikoak eta erregistro aldaketak... Gai da lagun arteko hizkuntza edo argota ulertze. HIZKUNTZ GAITASUNA Trebea da testuinguruko gako-hitzak, gako-hitz gramatikalak eta lexikalak erabiltzen, jarrera, aldartea, adimen jarrera eta asmoak inferitzeko, eta ondoren gertatuko dena aurreikusteko. Baliabide ugariren jabe da eta egokiena aukeratzen du adierazi nahi duena zehaztasunez adierazteko. Hiztegi zabala du eta esamoldeak eta ahozko beste zenbait adierazpide ere erabiltzen ditu. Esamolde idiomatikoaren eta lagunartekoaren ezagutza maila ona du. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA Esamolde eta lokuzio ugari ezagutzen ditu. Gai da erregistro batean baino gehiagotan aritzeko, oso muturrekoa ez bada (sentimenduak adierazi, txantxatan jardun, maitasun hitzak esan...). 	<p>Motak</p> <ul style="list-style-type: none"> B1 Ahozko esapideak: esanahia / jarraipena - hasiera B2 Ahozko esapideak: erabilera testuinguruan - egokitasuna / erantzuna / hots-hitzak (onomat.) B3 Errefrauk edo atsotitzak: esanahia jakitea / erabilera testuinguruan - egokitasuna <p>Iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> B1 eta B2: Ahozko hizkuntza: elkarrizketak, eztabaidak... Aldizkariak, literatur obrak, material didaktikoak B3 Bildumak: esamoldeak, esapideak, atsotitzak... Aldizkariak, literatur obrak, material didaktikoak <p>Moldea eta kopuruak</p> <table> <tr> <td>B1</td> <td>Jarraipena: / Zer esan nahi du?</td> <td>15</td> </tr> <tr> <td>B2</td> <td>Erantzuna / Egokitasuna</td> <td>12</td> </tr> <tr> <td>B3</td> <td>Zer esan nahi du? / Baliokidea</td> <td>3</td> </tr> </table> <p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> B1 <ol style="list-style-type: none"> 01. Denetarik duzula ere, niri A zer arraio! B bost axola! C axolik ez! D bost axola zaizkit! 02. Hoge euro kobratu eta jenero eskasa eman zidan A Lapurra hori! B Lapurra halakoa! C Lapurra nolakoa! D Bada lapurra! 03. Lan eta lan jardun dut A Leher eginda nago! B Nireak egin du! C Lur jota nago! D Ajeak nago! 04. Aspaldion, osasunez A gaizki-ondo nabil! B ondoezik nabil! C hala nola nabil! D kili-kolo nabil! 05. Eta badakizu, argi ibili! Esanahia: A Kale ezkutu eta ilunetan ez dela ibili behar. B Zeure burua jakintsu agertu behar duzula. C Arretaz jokatzeko komeni zaizula. D Hizketan ari denari kasu egin behar zaiola. 	B1	Jarraipena: / Zer esan nahi du?	15	B2	Erantzuna / Egokitasuna	12	B3	Zer esan nahi du? / Baliokidea	3
	B1	Jarraipena: / Zer esan nahi du?	15							
	B2	Erantzuna / Egokitasuna	12							
B3	Zer esan nahi du? / Baliokidea	3								

ATARIKO PROBA	B saila	Ahozkoan oinarritutakoak
<p>• B1 (jar.)</p> <p>06. Ene! Asko da zu garaiz heltzea! Esanahia:</p> <p>A Benetan harrigarria dela zu garaiz heltzea. B Izatez, puntuala zarela, eta ez dela gutxi. C Gaur berandu, baina gehienetan garaiz heltzen zarela. D Garaiz heldu zarela, betiko moduan.</p> <p>07. Aitaren batean esnatu da! Esanahia:</p> <p>A Berehala esnatu dela. B Aitarekin batera, aldi berean esnatu dela. C Aitarenean esnatu dela. D Larri eta ikaraz esnatu dela.</p> <p>08. Tokitan dago hori! Esanahia:</p> <p>A Zerbait hurbil dagoela. B Zerbait urrun dagoela. C Ez dakigula non dagoen. D Edozeinek dakiela non dagoen.</p> <p>09. Uste dut irakasleak begitan hartu nauela. Esanahia:</p> <p>A Iruditzen zaio irakasleak begiratu okerrak egiten dizkiola. B Antza, irakasleak ez du batere gustuko. C Irakasleak begirunez hartu du. D Irakaslea berarekin gustatuta dago.</p> <p>10. Tabernariari egin ahala eramaten dizkiote ogitartekoak. Alegia:</p> <p>A Berehalaxe urritzen dizkiote. B Arin batean saltzen ditu. C Merke ematen dizkie bezeroei. D Eramateko prest izaten ditu beti.</p> <p>Ereduak</p> <p>• B2</p> <p>01. —Kaixo, Joxe. Gaugiro ederra, ezta? —</p> <p>A Ederra gaua, bai. B Berdin, Inaxio. Gau on! C Egia. Ez dago halakorik hemen inguruetan! D Tira, ba, oherako ordua!</p> <p>02. Neskek soldaduskara joan beharko lukete! Harridura adierazteko:</p> <p>A Esatea ere! B Ezinbestekoa! C Nahitaezkoa! D Hurrenez hurren!</p>	<p>03. Borrokan ari diren umeei:</p> <p>A Kontuz, astakiloak, mina hartuko duzuela! B Kontuz, astakiloak halakoak, min hartu gabe! C Kontuz, astakilo horiek, mina egingo duzue-eta! D Kontuz, astakiloak alajaina, min egingo duzue bestela!</p> <p>04. —Sentitzen dut, ez dut astirik gela txukuntzeko. —</p> <p>A Berdin dio, utzi dagoen-dagoenean! B Ez dauka ardura, utzi bere horretan! C Ez du inportatzen, dagoela dagoenean! D Ez da axola, utzi dagoela!</p> <p>05. —Iñaki, etorri hona mesedez. Begira, Agirre jauna aurkezten dizut! —</p> <p>A Egun on, txo! B Kaixo, adiskidea! C Urte askotarako! D Pozten nauk, motel!</p> <p>Ereduak</p> <p>• B3</p> <p>01. Hori ez da, gero, ahuntzaren gauerdiko eztula! Esanahia:</p> <p>A Gauza bat ongi iruditu zaizula. B Engainatu egin nahi izan zaituztela. C Zerbait garrantzi handia duela. D Gaizki pasatu duzula, larri-larri.</p> <p>02. Egon hadi lo eta</p> <p>A gero gerokoak! B harrapa ezak! C jango duk mehe! D jarriko haiz potolo!</p> <p>03. Zaharrak berri! Zein galderari erantzuten dio?</p> <p>A Nola doakizu? B Zer moduz? C Bizi al haiz? D Zer berri?</p> <p>04. Froga edo oinarri sendorik gabe, iritziak berez ez du balio handirik. Alegia:</p> <p>A Usterik gutxienean, gertatzen da. B Usteak erdia ustel. C Zenbat buru, hainbeste aburu. D Non fida, han gal.</p>	

ATARIKO PROBA	C saila	Lexikoa
<p>Oinarriak</p> <p>EGA KONSTRUKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> GAITASUNAK <p>LINGUISTIKOA: gaitasun lexikoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ JARDUERAK <p>Testuinguru aintzat harturik, lexiko egokia aukeratzea, ahozko hizkuntzarako zein idatzirako.</p> <p>EEMB, C1</p> <ul style="list-style-type: none"> EEMB <p>HIZKUNTZ GAITASUNAK</p> <p>Ezagutza eta gaitasun soziolinguistikoak: (hiztegia, esamolde eginak, esapideak, eleaniztasun egoeran).</p> <p>Hiztegi ezagutza eta hiztegi hori erabiltzeko ahalmena.</p> <ul style="list-style-type: none"> C1 <p>GAITASUN HARTZAILEAK</p> <p>Gai da xehetasunak eta ñabardurak ulertzeko: iritzi inplizituak eta esplizituak, hiztunen jarrera eta beren arteko erlazio inplizituak, esamolde idiomatikoak eta erregistro aldaketak...</p> <p>Gai da lagun arteko hizkuntza edo argota ulertzeko.</p> <p>HIZKUNTZ GAITASUNA</p> <p>Baliabide ugariren jabe da eta egokiena aukeratzeko du adierazi nahi duena zehaztasunez adierazteko.</p> <p>Hiztegi erreperitorio zabala eta txukuna du. Ez du ahalegin nabarmenik egin beharrik esamoldeak edo saiheste estrategia bilatzeko.</p> <p>Esamoldeak eta ahozko beste zenbait adierazpide ere erabiltzen ditu. Esamolde idiomatikoak eta lagunartekoak ezagutza maila ona du.</p> <p>Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin.</p>	<p>Moldea eta kopuruak</p> <ul style="list-style-type: none"> C Esanahia 10 Hutsunean jartzekoa Sinonimia / Polisemia <p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> C <p>01. Horietako zein EZ dago buruan?</p> <p>A Bekokia B Garondoa C Galtzarbea D Burmuina</p> <p>02. Zer jaten da egosi gabe?</p> <p>A Indabak B Dilistak C Masustak D Lekak</p> <p>03. Gure aitita zenak egurrez eta zurez egiten zituen altzariak. Zer zen?</p> <p>A Hargina B Arotza C Nekazaria D Igeltseroa</p> <p>04. Txakurrak ibiltzeari esaten zaio.</p> <p>A zirikatzen xaxatzea B adarra jotzen iruzur egitea C aldarrikatzen kudeatzea D laztantzen izorratzea</p> <p>05. Frutari kentzeari esaten zaio.</p> <p>A larrua pelatzea B azala zuritzea C oskola larrutzea D mintza biluztea</p> <p>06. Zein bikote dago gaizki?</p> <p>A Gizon meharra B Emakume mesfidatia C Lur emankorra D Etxe zekena</p> <p>07. Zeinetan dago hitz bat tokiz kanpo?</p> <p>A liburua / aldizkaria / egunkaria / txostena B okela / ogia / fruta / satorra C lapitza / luma / klariona / boligrafoa D mendixka / muinoa / gaina / hegia</p> <p>08. Zeinetan dago gaizki erabilita "eman" aditza?</p> <p>A Malaria eta tifusa Afrikan ematen dira sarri. B Lau urte eman ditu buru-belarri lanean. C Irain gogorrak bota zizkidan eta min eman zidan. D Emaztea hil zitzaionean, ardoari eman zion.</p>	
<p>Motak</p> <ul style="list-style-type: none"> Esanahia jakitea (multzoka antolatuta): izenak, adjektiboak, aditzak, aditzondoak... Esanahi egokia jakitea: izen-adjektibo unitateak. Arloka-edo antolatuta, desegokia hautematea. Definizioaren arabera, hitza aukeratzea. Osaera zuzenaren arabera (elkartuak, eratorriak...). 		
<p>Iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko hizkuntza: kontakizunak, istorioak, azalpenak, hitzaldiak... Aldizkariak eta egunkariak: elkarrizketak, artikulatuak, erreportajeak, kronikak... Hedabideak: irrati-telebista, Internet... Hizkuntza idatzia: literatura (ipuinak, narrazioak, eleberrak, saioak...), dibulgazio aldizkariak, zientzi aldizkariak, hizkuntzen ikaskuntza... 		

ATARIKO PROBA	D saila	Morfosintaxia																											
<p>Oinarriak</p> <p>EGA KONSTRUKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> GAITASUNAK <p>LINGUISTIKOA: morfologia, sintaxia eta ortografia.</p> <p>FUNTZIONALA: argudiatzeko, agintzeko, erregutzeko, sentimenduak adierazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ FUNTZIOAK <p>Ideiak adierazi, hartzailearengan eragin.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ JARDUERAK <p>Testuinguru aintzat harturik, egitura egokiak aukeratzea, batez ere hizkuntza idatzirako.</p> <p>EEMB, C1</p> <ul style="list-style-type: none"> EEMB <p>HIZKUNTZ GAITASUNAK</p> <p>Ezagutza eta gaitasun fonologikoak, sintaktikoak eta soziolinguistikoak.</p> <p>GAITASUN PRAGMATIKOAK</p> <p>Komunikazio trukeetan edo agertokietan oinarritutako hizkuntz baliabideen erabilera funtzionala: diskurtsoa menderatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> C1 <p>GAITASUN HARTZAILEAK</p> <p>Gai da xehetasunak eta ñabardurak ulertzeko: iritzi inplizituak eta esplizituak, hiztunen jarrera eta beren arteko erlazio inplizituak, esamolde idiomatikoak eta erregistro aldaketak...</p> <p>HIZKUNTZ GAITASUNA</p> <p>Komunikazio gaitasunaren funtsezko alderdia da esanahia duten esaldiak antolatzeko ahalmena.</p> <p>Gai da zuzentasun gramatikal handiz jarduteko; akats gutxi egiten ditu eta ez dira ia nabaritzen.</p> <p>Baliabide ugariren jabe da eta egokiena aukeratzeko du adierazi nahi duena zehaztasunez adierazteko.</p> <p>Trebea da testuinguruko gako-hitzak, gako-hitz gramatikalak eta lexikalak erabiltzen.</p> <p>Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Egitura, paragrafoen banaketa eta puntuazioa logikoak eta praktikoa dira.</p> <p>Ortografia zuzena da, tartekako akats tipografikoak kenduta.</p>	<p>Iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ahozko hizkuntza: elkarrizketak, istorioak, azalpenak, hitzaldiak... Aldizkariak eta egunkariak: albisteak, artikulua, txostenak, erreportajeak, kronikak... Hedabideak: irrati-telebista, Internet... Hizkuntza idatzia: literatura (ipuinak, narrazioak, eleberrak, saioak...), dibulgazio aldizkariak, zientzi aldizkariak... <p>Hizkuntzen ikaskuntza materialak.</p> <p>Moldea eta kopuruak</p> <table> <tr> <td>• D1</td> <td>Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>• D2</td> <td>Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>• D3</td> <td>Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?</td> <td>6</td> </tr> <tr> <td>• D4</td> <td>Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?</td> <td>6</td> </tr> </table> <p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> D1 <p>01. Ez dizkizut orain esango entzun ditugun guztiak.</p> <p>A Mirenetaz B Mireni buruz C Mirenengatik D Mirenen buruz</p> <p>02. Zein dago zuzen?</p> <p>A Bidaia bat zozketatu dute bi pertsonentzat. B Lau aukeren artean bat baino ez dago ondo. C Hainbat elizen teilatuak apurtu ditu haizeak. D Edozein makinaren prezioa daki horrek.</p> <p>03. XXI. mendean erosoago biziko omen gara</p> <p>A Interneten esker B gutxiarekin bizitzaren truke C zenbait urteren zehar D energia nuklearrarekin gabe</p> <p>04. Lau ez dira nahikoa hogeit hamar emateko.</p> <table> <tr> <td>A</td> <td>kilo haragi</td> <td>lagunei</td> <td>afaltzen</td> </tr> <tr> <td>B</td> <td>haragi kilo</td> <td>lagunei</td> <td>afaltzeko</td> </tr> <tr> <td>C</td> <td>kilo haragi</td> <td>laguni</td> <td>afaltzen</td> </tr> <tr> <td>D</td> <td>haragi kilo</td> <td>laguni</td> <td>afaltzeko</td> </tr> </table> <p>05. Zein dago gaizki?</p> <p>A Erruduntzat hartu ninduten guztiak. B Laguntzaren ordainetan afaltzera gonbidatuko zaitut. C Asko saiatu ondoren, jakitun batean bihurtu da Ane. D Postal bana idatzi nien nire lagunei.</p>	• D1	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6	• D2	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6	• D3	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6	• D4	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6	A	kilo haragi	lagunei	afaltzen	B	haragi kilo	lagunei	afaltzeko	C	kilo haragi	laguni	afaltzen	D	haragi kilo	laguni	afaltzeko
• D1	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6																											
• D2	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6																											
• D3	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6																											
• D4	Hutsunea / Zein dago zuzen / gaizki?	6																											
A	kilo haragi	lagunei	afaltzen																										
B	haragi kilo	lagunei	afaltzeko																										
C	kilo haragi	laguni	afaltzen																										
D	haragi kilo	laguni	afaltzeko																										
<p>Motak</p> <ul style="list-style-type: none"> D1 Deklinabidea eta postposizioak. D2 Aditza. Denbora, pertsonak, komunztadurak... Baldintza, agintera / Orainaldia, lehenaldia D3 Perpaua maila. Egiturak (komunztadura), koordinatuak, menpekoak, ordena (galdegaia)... D4 Antolatzaileak eta lokailuak. Eta partikulak: <i>ere, elkar, -en burua, egin, omen, ote, ahal...</i> 																													

ATARIKO PROBA	D saila	Morfosintaxia
<p>Ereduak</p> <p>• D2</p> <p>01. <i>Kemen handiz ekologistek lanean.</i> A ari ziren B ziharduten C zirauen D zebiltzan</p> <p>02. <i>Ezusteko galanta eman , neska. Ez berriz egin, arren.</i> A digun iezagun B diguzu iezaguk C diguzu iezagun D diguk iezaguk</p> <p>03. <i>Hain gaizki ikusi izan dudarik gabe etxera eramango</i> A banizue nizuen B bazintuztedan nizuen C banizuen zintuzketet D bazintuztet zintuztedan</p> <p>04. <i>Zure autoa matxuratuz gero, lasai egon, edonork eraman zu etxera.</i> A zaitzake B zintezke C diezazuke D litzaizuke</p> <p>05. <i>Hara! Egin berak nahi duena, eta utz bake santuan besteak.</i> A bedi diezagula B dezan ditzan C dezala ditzala D beza dakigula</p> <p>Ereduak</p> <p>• D3</p> <p>01. <i>Nori esan zion Jonek mozkor hutsa zela?</i> A Jonek esan zion Joxeri mozkor hutsa zela. B Jonek Joxeri esan zion mozkor hutsa zela. C Mozkor hutsa zela esan zion Jonek Joxeri. D Jonek Joxeri mozkor hutsa zela esan zion.</p> <p>02. <i>Hemen edonork daki aldamenekoak Zein dago gaizki?</i> A adina B bezainbeste C adinako D beste</p> <p>03. <i>—Hona zure oparia. —</i> A Ene! Zer dotorea da! B Ene! Dotore askoa, gainera! C Ene! Hori bai dela dotorea oparia! D Ene! Zelako dotorea!</p>	<p>04. <i>Zein dago zuzen?</i> A Bat-batean, gaizto guztiak pertsona onetan bihurtu ziren B Horrek ez dakizki txisteak kontatzen. C Gogor ekin zuen lanari hirurak arte. D Ama ikustean utzi zion negar egiteari.</p> <p>05. <i>Hainbeste galdera egin dizkit,</i> A zer erantzun ez nekiela gelditu naiz. B zer erantzunik jakin gabe gelditu naizela. C non gelditu naizela zer erantzuterik ez jakinda. D ezen gelditu naiz zer erantzuterik ez neukala.</p> <p>Ereduak</p> <p>• D4</p> <p>01. <i>Larunbatean lanera joan behar dut., ezin izango naiz etorri.</i> A Beraz B Orduan C Berez D Aitzitik</p> <p>02. <i>Ez zuen etsi aukera guztiak agortu</i> A nahiz eta arte B baita ere C nahiz eta ere D harik eta arte</p> <p>03. <i>Ona da neurritz jatea; ona da, , kirola egitea.</i> A ere bai B halaber C izan ere D ere</p> <p>04. <i>Afaria ordaintzeaz , eskupeko on bat ere eman nion.</i> A ez ezik B gainera C baita D bestalde</p> <p>05. <i>Zein dago zuzen?</i> A Zuk beste zenbait arazo ere izango dituzu. B Zuk beste arazo batzuk izango dituzu ere. C Zuk beste arazo batzuk izango dituzu ere bai. D Zuk ere bai beste arazo batzuk izango dituzu.</p> <p>04. <i>..... madari gogorrenak ekarri dituzu gaur azokatik!</i> A Denik eta B Hainbat eta C Inon diren D Ahalik eta</p>	

ATARIKO PROBA	E saila	Euskara batua jakitea
<p>Oinarriak</p> <p>EGA KONSTRUKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> GAITASUNAK <p>LINGUISTIKOA: morfologia, sintaxia eta ortografia, hizkuntza molde estandarrean. Akademiak idatzirako erabakitako hitzen forma, aditz sistema, egiturak, leku izenak, pertsona historikoen izenen forma...</p> <p>FUNTZIONALA: argudiatzeko, agintzeko, erregutzeko, sentimenduak adierazteko: «Euskara, bai ahoz bai idatziz zuzen eta egoki erabiltzeko gai izatea».</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ FUNTZIOAK <p>Gai izan behar du, bizitza errealean bezala, ataza bat burutzeko bete behar diren hizkuntz jardueretan aritzeko: irakurritako testu bat ulertzeko eta idatzizko adierazpenak molde arautuan egiteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ JARDUERAK <p>Hizkuntza estandarren arauak aintzat harturik, forma eta egitura zuzenak aukeratzea, batez ere hizkuntza idatzirako.</p> <p>EEMB, C1</p> <ul style="list-style-type: none"> EEMB <p>HIZKUNTZ GAITASUNAK</p> <p>Ezagutza eta gaitasun fonologikoak, sintaktikoak eta soziolinguistikoak (hiztegia, esapideak, eleaniztasun egoeran).</p> <ul style="list-style-type: none"> C1 <p>GAITASUN HARTZAILEAK</p> <p>Gai da xehetasunak eta ñabardurak ulertzeko: iritzi inplizituak eta esplizituak, esamolde idiomatikoak eta erregistro aldaketak...</p> <p>HIZKUNTZ GAITASUNA</p> <p>Gai da zuzentasun gramatikal handiz jarduteko; akats gutxi egiten ditu eta ez dira ia nabaritzen.</p> <p>Trebea da testuinguruko gako-hitzak, gako-hitz gramatikalak eta lexikalak erabiltzen.</p> <p>Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Ortografia zuzena da, tartekako akats tipografikoak kenduta.</p>	<p>E saila</p>	<p>Iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> Aldizkariak eta egunkariak: albisteak, artikulua, txostenak, erreportajeak... Hedabideak: irrati-telebista, Internet... Hizkuntza idatzia: literatura (ipuinak, narrazioak, eleberrak, saioak...), dibulgazio aldizkariak, zientzi aldizkariak... Euskaltzaindiaren dokumentuak: <i>Hiztegi Batua</i>, <i>Arauak</i> eta bestelakoak.
		<p>Moldea eta kopuruak</p> <ul style="list-style-type: none"> Zein dago zuzen / gaizki? 5
<p>Motak</p> <ul style="list-style-type: none"> Ortografi arauak. Hitzen idazkera arautua. Hitzen forma. Forma estandarra <i>versus</i> euskalkietako moldeak edo mintzamen mailakoak. Adizkiak. Aditz sistema estandarra <i>versus</i> euskalkietako moldeak edo mintzamen mailakoak. Euskara baturako erabakiak, oro har: egitura egokiak <i>versus</i> erdarakadak, deklinabidea... 	<p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> E <p>01. Idazkera. Zein zerrenda dago zuzen?</p> <p>A gustora / bilete / jeiki / yoga</p> <p>B laster / jeitsi / ihardun / alkondara</p> <p>C segundu / errez / sinestu / nahitanahiez</p> <p>D bonbilla / miretsi / boluntario / segundo</p> <p>02. Pozik gaude, partidua irabazi</p> <p>A baitugu</p> <p>B baidugu</p> <p>C bait dugu</p> <p>D baitdugu</p> <p>03. Batek daki non edo non mukizu horiek!</p> <p>A dabilzaten dautzan</p> <p>B dabilzan datzaten</p> <p>C dabilzaten datzaten</p> <p>D dabilzan dautzan</p> <p>04. Idazkera. Zein dago zuzen?</p> <p>A Bostgarren ihardunaldiak antolatuta dituzte.</p> <p>B XX. mendeko asmakizun itzela da Internet.</p> <p>C Erizpide zehatzak euki behar dira textugintzan.</p> <p>D Zenbatna punto dituzte jokalariek?</p> <p>05. Idazkera. Zein dago gaizki?</p> <p>A Herriz-herriko ibilaldia.</p> <p>B Ezkon-berrien festa.</p> <p>C Etixerik-etxeko bisita.</p> <p>D Senar-emazteen egoera.</p> <p>06. Euskara batua. Zein dago zuzen?</p> <p>A Ostatu batetan ezagutu nuen Maddi.</p> <p>B Irailan dugu azterketa, lauean hain zuzen.</p> <p>C Batzutan nere lagunekin egoten naiz.</p> <p>D Beraien arteko maitasuna betiko izatea espero zuen.</p>	

ATARIKO PROBA	F saila	Irakurriaren ulermena	
<p>Oinarriak</p> <p>EGA KONSTRUKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> GAITASUNAK <p>SOZIOLINGUISTIKOA: atazak eskatutako testuingurura egokitzeak, hizkuntz aldaerak ulertzeak, erregistro desberdinak ulertzeak.</p> <p>LINGUISTIKOA: lexikoa, morfologia, sintaxia eta ortografia.</p> <p>FUNTZIONALA: argudioak, konparazioak, adibideak ulertzea eta adieraztea.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ GAITASUNAK <p>Ezagutza eta gaitasun soziolinguistikoak: hiztegia, esamolde eginak, esapideak, egiturak.</p> <p>Hiztegi ezagutza eta hiztegi hori erabiltzeko ahalmena.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ JARDUERAK <p>Irakurritako testuak zehaztasunez ulertzea.</p> <p>Testuingurua aintzat harturik, adierazpen zehatzak aukeratzea.</p> <p>EEMB, C1</p> <ul style="list-style-type: none"> EEMB <p>HIZKUNTZ GAITASUNAK</p> <p>Ezagutza eta gaitasun lexikoak, fonologikoak, sintaktikoak eta soziolinguistikoak (hiztegia, esapideak, eleaniztasun egoeran).</p> <p>GAITASUN PRAGMATIKOAK</p> <p>Komunikazio trukeetan edo agertokietan oinarritutako hizkuntz baliabideen erabilera funtzionala: diskurtsoa menderatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> C1 <p>GAITASUN HARTZAILEAK</p> <p>Gai da testu luze eta konplexuak erabateko xehetasunez ulertzeak, baldin eta berriro irakurtzeko aukera badu.</p> <p>Gai da gizarte-bizitzan, lan-arloan edo arlo akademikoan aurki ditzakeen testu zabal eta konplexuen sail handia zehatz ulertzeko, eta jarrerak eta iritzi implizituak nahiz esplizituak adierazten dituzten xehetasunez oartzeko.</p> <p>HIZKUNTZ GAITASUNA</p> <p>Trebea da testuinguruko hitz-gakoak, hitz-gako gramatikalak eta lexikalak ulertzen.</p> <p>Gai da iritziak eta baieztapenak zehatz mailakatzeko, ziurtasun/ziurtasun ezaren, uste/ zalantzaren, probabilitatearen eta abarren arabera.</p>	<p>Iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza idatzia: literatura (ipuinak, narrazioak, eleberrak, saioak...), dibulgazio aldizkariak, zientzi aldizkariak... Hedabideak: irrati-telebista, Internet... Aldizkariak eta egunkariak: albisteak, artikulak, txostenak, erreportajeak, kronikak... <p>Moldea eta kopuruak</p> <ul style="list-style-type: none"> F1 Hots / Alegia / Hau da / Bestela 8 Esaldiak edo pasarte labur trinkoak F2 Enuntziatua + 4 item (a-b-c-d) 4 Bi testu labur, guztira: 320 hitz (± 30) Galderak, testu kopurua: 150 hitz (± 20) <p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> F1 <p>01. Gauzak ahalik eta ongien egiteak, zinez lagundu arren, ez du lorpenaren arrakasta bermatzen. Hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> A Ahalegin guztiz gauzak egiten saiatzeak ziurtatu ohi du arrakasta. B Gauzak ondo egiteak asko laguntzen du, nahiz eta hori nahikoa ez izan arrakasta izateko. C Arrakasta bermatzeko nahikoa da ahalik eta ondoen egitea gauzak. D Lagungarria da ahalegin guztiz gauzak egitea arrakastatsuen diren ekintzetan. <p>02. Akatsak akats itxurazko lana egin duzula uste dut. Bestela esanda:</p> <ul style="list-style-type: none"> A Akats asko dituzu, baina badu zer baiten antza lan honek. B Akatsen batzuk badituzu ere, ontzat ematen dut egin duzun lana. C Itxurari baino gehiago akatsak ez egiteari begiratu beharko zeniokeelakoan nago. D Aurkezpena ona da, baina egin duzun lana akatsez beteta dago. <p>03. Duintasuna lehenesten zuten guztiek, jenialtasunaren aurretik. Hots:</p> <ul style="list-style-type: none"> A Hurrenez hurren, jenialtasuna zen aurrena, eta gero duintasuna. B Duintasunari ez zioten jenialtasunari adinako begirunerik. C Duintasuna onesten zuten, baina ez jenialtasuna bezainbeste. D Duintasuna jenialtasuna baino gogokoagoa zuten. 		
		<p>Motak</p> <ul style="list-style-type: none"> F1 Pasarte labur trinkoen ulermena. Esaldi eta pasarte trinkoen interpretazio zehatza. Zentzu orokorra, denotatiboa eta konnotatiboa. F2 Testu laburren ulermena. Horietako ideiak, argudioak, adibideak, konparazioak... Zentzu orokorra, denotatiboa eta konnotatiboa. 	

ATARIKO PROBA	F saila	Irakurriaren ulermena
<p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> • F2 <p>Tibetarrek altuerara nola egokitzen diren argiago dago</p> <p><i>Science</i> aldizkariaren uztailaren 4ko zenbakian tibetarrek altuerarekiko duten egokitzapen mekanismoari buruzko arrasto sendoak eman zituzten. Munduan bi populazio bizi dira 4.000 metrotik gora, tibetarrek eta andetarrek. Azken horien altuerarekiko egokitzapen mekanismoa ezaguna da: euren odolak askoz hemoglobina gehiago ekoizten du gainerako gizakiona baino; horrela, nahiz eta bizi diren altueran itsas mailan baino %40 oxigeno gutxiago izan, beraiek oxigeno gehiago garraia dezakete gorputzeko zeluletaraino.</p> <p>Baina hemoglobina ekoizpen horrek oso ondorio kaltegarriak ditu andetarrentzat. Odola loditu egiten da, eta horrek zaildu egiten du ehunen oxigenazioa. Horregatik, emakume haurdunek ume asko galtzen dituzte, eta jaiotzen direnak oso txikiak dira. Tibetarren hemoglobina kopurua, berriz, normala da; haien kasuan, geneetan dago gakoa, eta batez ere EPAS1 izena duen eta goi mailako kirolean ondo ezaguna den genean. Antza, egungo tibetarrengan EPAS1 genea mutatu egin da, eta oxigeno eskasiara moldarazi ditu gorputzak.</p> <hr/> <p style="text-align: right;">Joxerra Aizpurua Argia 142 hitz</p> <p>01. Altuera handiko guneetara egokitzeko, zer da beharrezkoa?</p> <p>A Kasu guztietan, hemoglobina gehiago ekoiztea.</p> <p>B Odolean nahiz geneetan aldaketak gertatzea.</p> <p>C Gene aproposak garatzea hemoglobina kopurua ugaltzearren.</p> <p>D Gorputzeko zeluletaraino oxigeno gehiago garraiatzea.</p> <p>02. Zer ikasi dugu andetarren eta tibetarren mekanismoak alderatuta?</p> <p>A Tibetarrek ondorio kaltegarriagoak jasaten dituztela.</p> <p>B Kirolaren ondorioz, tibetarrek mekanismo berezia garatu dutela.</p> <p>C Hemoglobina eskasiagatik andetarrek oxigeno gutxiago dutela.</p> <p>D Tibetarrek ez dutela pairatzen andetarren ondorio kaltegarriak.</p>	<p>Madagaskarreko arratoiak, izurritearen gordeleku</p> <p>Madagaskar irlako goi-lautadetan bizi diren arratoi beltzak izurritearen gordeleku bilakatu dira. Munduan 2.000 izurrite kasu inguru gertatzen dira urtero, horietatik 200 edo 300 Madagaskarren.</p> <p>Uharteak ia 80 milioi urte darama Afrikako kontinentetik bereizita, isolamenduan, baina gizakiak orain dela askoz gutxiago –1.000 urte– eraman omen zuen arratoi beltza bertara. Lehen epidemia 1898. urtean dokumentatu zen; uste denez, Tamatave kaira heldutako ontzi batek eraman zuen <i>Yersinia pestis</i> bakterioa. Hark berehala infektatu zituen arratoi beltzak, <i>Rattus rattus</i> espeziekoak. Arratoi horietako asko hil ziren eta hiltzen dira, baina joan den mendeko 20ko hamarkadaz geroztik arratoi multzo batek defentsak garatu ditu, eta bakterioaren eramaile bilakatu da.</p> <p>Madagaskarreko Pasteur Institututuko ikerlari talde batek arestian aipatu arratoinen azterketa genetikoari ekin dio izurritea hobeto ezagutu asmoz, ez baita ahaztu behar Afrikan izaten dela munduko izurrite kasuen %98. Edozein laguntza ongi etorria izango da..</p> <hr/> <p style="text-align: right;">Joxerra Aizpurua Argia 136 hitz</p> <p>03. Zer gordetzen dute bere baitan Madagaskarreko arratoi beltzek?</p> <p>A Afrikako orain 80 milioi urteko izurriteak.</p> <p>B Egungo Afrikako izurrite kasu ugarien jatorria.</p> <p>C Afrikako epidemien bakterioen %98a.</p> <p>D Uhartera itsasoz iritsitako bakterioa.</p> <p>04. XX. mendeko 20ko hamarkadaz geroztik gertatu den bilakaera zergatik da garrantzitsua?</p> <p>A Harrezkero arratoiak ez direlako hiltzen.</p> <p>B Arratoiak izurrite gehien aurkako defentsak garatu dituztelako.</p> <p>C <i>Rattus rattus</i> espezieko ale gutxi bizi direlako.</p> <p>D Bakterio eramaileak ikerketarako baliagarri izan daitezkeelako.</p>	


ATARIKO PROBA	G saila	Beste batzuk
<p>Oinarriak</p> <p>EGA KONSTRUKTUA</p> <ul style="list-style-type: none"> GAITASUNAK <p>LINGUISTIKOA: ortografia (zeinuak, laburdurak, siglak, letra larriak eta xeheak, letrakera) eta hizkuntza molde estandarreko konbentzioak: datak, orduak, zientzia mailakoak (formulen eta eragiketen irakurketa)...</p> <p>FUNTZIONALA: hizkuntza idatziz konbentzioen arabera erabiltzeko gai izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ FUNTZIOAK <p>Gai izan behar du, bizitza errealean bezala, ataza bat burutzeko bete behar diren hizkuntza-jardueretan aritzeko: irakurritako testu bat ulertzeko eta idatzizko adierazpenak molde arautuan egiteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> HIZKUNTZ JARDUERAK <p>Hizkuntza estandarraren arauak aintzat harturik, adierazpen molde estandarrak aukeratzea, batez ere hizkuntza idatzirako.</p> <p>EEMB, C1</p> <ul style="list-style-type: none"> EEMB <p>HIZKUNTZ GAITASUNAK</p> <p>Ezagutza eta gaitasun fonologikoak, sintaktikoak eta soziolinguistikoak (hiztegia, esapideak, eleaniztasun egoeran).</p> <ul style="list-style-type: none"> C1 <p>GAITASUN HARTZAILEAK</p> <p>Gai da xehetasunak eta ñabardurak ulertzeko.</p> <p>HIZKUNTZ GAITASUNA</p> <p>Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin.</p> <p>Egitura, paragrafoen banaketa eta puntuazioa logikoak eta praktikoak dira.</p> <p>Ortografia zuzena da, tartekako akats tipografikoak kenduta.</p>	<p>Iturriak</p> <ul style="list-style-type: none"> Aldizkariak eta egunkariak: albisteak, artikulua, txostenak, erreportajeak... Hedabideak: irrati-telebista, Internet... Hizkuntza idatzia: literatura (ipuinak, narrazioak, eleberrak, saioak...), dibulgazio aldizkariak, zientzi aldizkariak... Estilo liburuak: egunkariak, aldizkariak, telebistak... Euskaltzaindiaren dokumentuak: <i>Hiztegi Batua</i>, <i>Arauk</i> eta bestelakoak. <p>Moldea eta kopuruak</p> <ul style="list-style-type: none"> Zein dago zuzen / gaizki? 4 Hutsuneak <p>Ereduak</p> <ul style="list-style-type: none"> G <p>01. Idazkera. Zein dago zuzen?</p> <p>A 2002ko uztailak 4an jaio zen, 8:00-retan. B 2002.go uztailak 4.ean jaio zen, 8:00-tan. C 2002.eko uztailak 4an jaio zen, 8:00tan. D 2002ko uztailaren 4an jaio zen, 8:00etan.</p> <p>02. Puntuazioa. Zein dago gaizki?</p> <p>A Esanak esan zuk ere, beste askok bezala, amore eman beharko duzu. B Esanak esan, zuk ere, beste askok bezala, amore eman beharko duzu. C Esanak esan; zuk ere, beste askok bezala amore eman beharko duzu. D Esanak esan, zuk ere, beste askok bezala amore eman beharko duzu.</p> <p>03. Idazkera. Zein dago zuzen?</p> <p>A K.o. IV. mendeko iruindarrak... B K.o. IVgarren mendeko Iruindarrak... C K.O. I.V. Mendeko iruindarrak... D K.o. IV. Mendeko Iruindarrak...</p> <p>04. Zenbat dira, ba, pentsaera horretakoak?</p> <p>A EAeko herritarren %80. B E.A.E.ko herritarren %80a. C EAE-ko herritarren %80-a. D E.A.E.-ko herritarren %80.</p> <p>05. Nola irakurtzen da? (26+8)/4</p> <p>A Hogeita sei gehi zortzi, laugatik zatituta. B Hogeita seiri zortzi gehitzen, laugatik zatitzen. C Hogeita seiri zortzi gehitu eta zati lau zatitu. D Hogeita sei gehi zortzi, zati lau.</p>	
<p>Motak</p> <ul style="list-style-type: none"> Datak eta orduak. Idazkera arautua. Zeinu grafikoen erabilera. Esaldiko unitateen banaketa: komak, puntu eta komak, bi puntuak... Letra larriak eta xeheak. Laburdurak, siglak... Zenbakiak, formulak eta eragiketak. Horiek adierazteko modua, idatziz. 		

Lehen atala

Koadernotxoa



Erantzun-orria



Koadernotxoko oharrak

OHARRAK

1. Galdera-orri hauetatik atera ezazu solte dagoen erantzun-orria.
2. Konproba ezazu koadernotxo honek 8 orrialde dituela eta ez dagoela ageriko akatsik.
3. Idatzi hemen zure izen-deiturak eta NA zenbakia. Koadernotxo hau ez da zuzentzen.

NA zenbakia	Izena
<input type="text"/>	<input type="text"/>
1. deitura	2. deitura
<input type="text"/>	<input type="text"/>

4. Atariko Proba egiteko denbora: ordubete.
5. Erantzuten hasi aurretik bete ezazu aparteko **erantzun-orriko B atala**. Kontuan izan orri hori dela zuzentzen dena. Ipin datuak eta markak behar bezala.
6. Ariketa bakoitzean aukeratu behar duzu erantzun **zuzena** edo **egokiena** edo **zein dagoen gaizki** eta erantzun-orrian dagokion koadernotxoa arkatzez markatu: erantzun bakarra.
7. Asmaturiko erantzun bakoitzeko puntu bat; erantzun okerrengatik ez da punturik kentzen.
8. Aukera anitzeko test hau era automatizatuan zuzentzen da, irakurgailu optiko batekin. *Erantzun-orria betetzearekin azterketariak era honetako zuzenketari berariazko onespena ematen diola ulertzen da.*